

Hemengo egia, Madrilen

MARTIN UGALDE



ORAIN astebete zabaldu zen susmoa: egia, gezurra ote zen. Lehen ere gertatu da honelakorik, baina orain honelako mudantzak ordu bate-tik bestera gertatzen asiak dira. Uda honetan bati-pat. Egia hau gordeta zegoen iturritik bota zuten gordin-gordina: Autobiaren korapiloa desegin zela, agintzen jarri berri denak Askatu zuela. Egia sinesgaitza zirudien, baina batzuk sinetsi egin zuten, komeni zitzaielako. Kontrarioak, berriz, federik ez, eta laster aurkitu zioten egi borobil leunari ertza; ertzetara begira jartzen zaren bakoi-tzean, badakizu, begia okertzen zaizu, makurke-rian hasten zaren bezain laster ikusten dizkiozu itxuari koloreak, eta egia-eren ertz honi ikusi zioten berehala «Zakilixut» en Armi-Armarena. «Hau be-tikoa duk» esan zuen bere golkorako kolore hori salatzen bizizena; Baina oraingoan zerbait gehi-go esan beharrean isilik geratu zen eta: «el calla otorga» k ertzari arrosa kolorea erantsi zion denen aurrean. Mundua geratu zen harri eginda! Ezen ohizko konbinaketa; baina handiagoak ikusten ohitzen hasiak garenez gero, isilik geratu ziren sozioak. Baina gertatzen dena da isiltasuna dela gehien entzuten dena zezioetan, eta isilune honek ernegarazi zuen kontrarioak izpiritu baten indarra gogorazi zuen. Hor piztu zen argia Madrilen, eta oporretan zegoen jefekak hondartzatik bota berri du irrintzia: bera dela arrosaren jabea, ez hemengo jauregian bizi den ordezkaria eta egia osoa egin da-dila gure ilunpe honetan. Eta hala hitza jan behar izan dute hemengo bildotsak, ezabatu dute egia borobilean utzi zuten arrosa kolorearen marka, nahiz eta aipatutako ertza, jatorrizko bekakua, hor badirau ere.

Hirukoitza

RAMON ETXEZARRETA



KIROLAZ hitze-ginenezake. Ihardunean ihardu-nean saskibaloia ere ikutu bat eman. Zer arraio duen Loiola 91k talde batean kontzientzia eragozpenik ez eragiteko galdetzea bidezkoa da beti, gaur eta bihar. Zer kontzientzia zorrotz eta aske duen talde batek galde genezake tamainako morokilaren publizitatea egiteko, publizitate ho-rrekin identifikatu gabe noski. Denborak joan eta diruak kobratu eta gero esateak ere balio du non-bait. Ihazkoa txantia ez baldin bazen aurtengoak zergatik izan behar duen ere galde genezake. Kris-to guztia idiota bihurtu al garen galdetzea ere kirol ekintza bat izan daiteke.

Edo bizitza enpresari-ek alde batetik eta talde armatu batek bestetik osatutako pasilo baten erdian irautea dela era pentsa genezake. Ariketaren ari-keta. Batzuetan enpresari-ek ematen digutela egu-rra, besteetan berriz talde armatuak, eta tartean behin bi nagusiek elkar berotzen dutela.

Horrela enpresari-ek talde armatuarekin hitze-gin eta konpontzen dira, eta alderantziz. Sokaren mu-turrak ondo korapilatu eta gero saskibaloia talde bati ematen diote erabakien berri beste guztiak entaratu gaitezen. Kirolariak beti izan dira herriaren orde-zkatzaile egokiak.

Eta politikariak? Bien bitartean politikari-ek be-ren muinak urtzen dituzte urte horretarako Santa Maria elizako salbera iritsiko ote diren ala ez pen-satzen. Salbera iristea ala ez hil ala biziko auzia da demokraziarentzat. Hirukoitza!

Herriarrona tartean behin paseadara irtetea da.

EL CORREO ESPAÑOL

HB

Orain benetan garrantzia duenak, eta asko, gainera, da jakitea ea Herri Batasunako koalizioa osatzen duten talde guztiek bokazioa duten insti-tuzioen barruan borrokatzeko eta ez horietatik kanpo ez ge-ratzeko, eta gauzak horrela, zein izango diren beraien ha-rremanak ETArekin hemendik aurrera.

Arzalluzek, berriro, besa-petik atera du bata, guztiek enbidoa galdutzat zeukate-nean. Baina orain arazoa al-derdi batzuk EAJren ustezko arrakasta onartzean izango duten zela dago (ez da ko-meni inoiz kanpaiak aurretik jotzea HB tartean dagoenean), alderdi nazionalista horrek, beti bazterrean jarraitzeko bo-kazio setatia zuen koalizioa bide demokratikora sartzea edo hurbiltzea lortu bait du.

ANDRES

ABERASTURI / 1991-VIII-17

EL DIARIO VASCO

Pausu garrantzitsua

HBren ohar horren aurrean, lortu behar den lehen ondorioa da, sistema demokratikoa —kasu jakin honetan, legezko tinkotasun demokratikoa— indartua atera dela ETaren terrorismoaren txantia-aren eta etengabe instituzioek jasan duten presio antidemokrati-koaren aurrean. Gipuzkoako Batzar Nagusiak ez dira de-mokratikoagoak izango HBk

HEMEROTEKA



FERRERES / LA VANGUARDIA / 91-VIII-17

DEIA

Maniobra marjina eta entseiu orokorra

botazio bati men egiteagatik; indarrean dagoen proiektu ofi-zialaren alde atera zirenean, horrela ziren oso osorik.

(...)

Laster jakingo da «men egi-te» hori estrategia den koali-zioa eta ETA sartuta dauden putzu politikotik irteteko edo lehen urratsa —oso garrantzi-tua— konfirmatzen bada —eszenario berri baterako. Ondo dago auziari irtenbide demokratikoa ematea horren-beste ergelkeriaren aurrean, baina euskal gizartea legiti-maturik dago erabaki argia-goak eskatzeko —HB eta ETArekin— berriro ere en-gainatua ez izateko. Alderdiek zuhurtasun handiarekin jokatu behar dute prozesuak ondo amaitzeko, eta HB eta ETari buruan sartu behar zaie sistema demokratikoa askoz indar-tsuagoa dela beraien inpos-a-keta eta txantia-ak baino. Hori buruan sartzen zaienean baka-rrik etorriko da normalizazioa.

EDITORIALA / 1991-VIII-17

Erraza da esplikatzeko bizi-raupen hutsean bada ere, EA eta EEren erantzun sumindu eta arduragabeak, baina askoz «arrazoi» gutxiagoagokoak dira PSOE eta PPrenak; horre-la ikus daiteke Gipuzkoako Diputazioko beren ordezkari-en lehen erantzunak aztertuta. Benegasen erasoak horiei aipu ona kentzean, ez du nahi-ko esplikaziorik, kontutan izanik eremua Ibizakoa, opo-rretakoa eta relajatu izan dela. Autobidearen auzia konpon-tzea berez oso garrantzitsua izan arren, aintzinako beste ba-tzuk argitzeko bideak ere eska-tzen zituen. Jaiotzez euskal-duna den Madrilako filosofo batek atzo zioen moduan, Ba-kebideratzeko entsegu politiko orokor bat bezalakoa. Hori da euskal hiritar gehienek hartu-

tako ilusioari eman dakioken esplikaziorik hoberena, eta Espainiako politikotik eta iritzi liderren erantzun suminduena.

EDITORIALA / 1991-VIII-17

ABC

Paktua zuhurtasunarekin

EAJren jarrera, auzi berri hori edonola amaituta ere, ETari on handia egin dio. Na-zioanalista historikoez zuhur-tasuneko paktuaren garaia ire-ki dute. Esan dute, eta ia frogatu ere bai, ETaren errealtatea hor dagoela, eta , eguneroko arazoen aurrean, ezin zaizkiela ateak itxi. Noski, bidaia horre-tarako ez zen behar horrenbes-te alforja, hainbeste erretorika, armetan babesten direnak nahitaez baztertzeari buruz.

Egoera horietan, Juan Cruz Alli Nafarroako Gobernuak hautagai kontserbadoreak ahaletzen egin ditu goiz jai-kitzeko. Herri Batasunarekin liberalak izateko prest jarri di-ra, bera inor baino gehiago. Herri Batasunak indarkeria ez gaitzestea, beraiekin bizitza politiko normala egiteko traba nagusia zirudiena, jadanik ez da kondenagarria. Beste ha-rresi bat erori da. ETak lortuko du elkarrizketa bere erara egi-tea eta euskal politika argi eta garbi baldintzatzea. Politikoki mugitzen den lurralde ere-muan, Alli bezalakoa aurrera aterako dira.

LORENZO


CONTRERAS / 1991-VIII-17

PERTSONAIA

Arzallus

Lehen beltz ikusten zena bihurtu da urdin hain alperrak ez ziran hainbeste alegin azkenean onartu duzu zuk ere fin baina kontuz Paktuko sozio hoiekin piztu den argi hori itzali ez dedin

XABIER NARBARTE



Administrazio Kontseiluko Lehendakaria:
MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Lehendakaria:
JOAN MARI TORREALDAI

Kontseilari Ordezkaria:
JOXE MIEL ZUMALABE

Gerentea:
INMA GOMILA

Zuzendaria:
PELLO ZUBIRIA

Zuzendariordeak:
NEREA AZURMENDI
LUZIEEN ETXEZAHARRETA
IÑAKI URÍA

Publizitatea:
KORNELIO ROTETA

Egunkaria

Batzorde Parekidea: 72564 E
Lege Gordailua: SS 800/90

HELBIDEAK

Egoitza soziala, Pulizitatea eta Administrazioa: Antso Jakituna, 16-1. / 20.010 Donostia / ☎ 46 90 22 / Faxa: 45 59 57

Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industrialdea 01-02 Pabilioak / 20.160 Lasarte-Oria / ☎ 37 15 45 / Faxa: 36 54 93

Arabak: San Antonio, 20-1. ezker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxa: 23 38 73

Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13. esk. / (Irrintzi dorrea) / 31011 Iruñea / ☎ 17 80 78/79 / Faxa: 17 80 77

Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1. eskuma. / 48002 Bilbo / ☎ 423 90 62 / Faxa: 423 94 60

Lapurdi / Nafarroa Behera / Zuberoa: 2, Galuperia kaia. / 64100 Baiona / ☎ 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11